

BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA

3424

AGINDUA, 2021eko ekainaren 9koa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuarena, zeinaren bidez egiten baita 2021eko ekitaldirako 202/2015 Dekretuan aurreikusitako dirulaguntzen deialdia (202/2015 Dekretua, urriaren 27koa, ingurumena babesteko inbertsioak egiteko dirulaguntzak enpresei emateko baldintzak arautzekoa).

Ingurumena babesteko inbertsioak egiteko dirulaguntzak enpresei emateko baldintzak arautzen dituen urriaren 27ko 202/2015 Dekretua 2015eko azaroaren 6an argitaratu zuten Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian. Aipatutako dekretua zenbait arau aplikatzeko egin zen, hain zuzen: 2014-2020 aldiko ingurumenaren babesaren eta energiaren arloko estatu-laguntzei buruzko jarraibideak (2014-06-28ko AO C 200) eta ekainaren 17ko 651/2014 (EB) Erregelamendua, laguntza-kategoria jakin batzuk barne-merkatuarekin bateragarritzat jotzen dituen, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikuluen arabera. Dekretu horren helburua da, funtsean, inbertsioak sustatzea, enpresa onuradunek ingurumen babes-maila jakin bat lortzeko eta horrekin indarrean dauden Europar Batasuneko araudiak gainditu ditzaten, inbertsio horiekin zuzenean lotutako aztelanak barne.

Ingurumena babesteko inbertsioak egiteko dirulaguntzak enpresei emateko baldintzak arautzen dituen urriaren 27ko 202/2015 Dekretuaren 13. artikuluan xedatutakoaren arabera, dagokion deialdiaren agindua urtero argitaratuko da, artikuluan bertan ezarritako edukiarekin argitaratu ere. Ildo horretan, agindu honek, aipatutako dekretuan jasotako manuari jarraikiz, hau finkatzen du: dirulaguntzaren xede izango diren lerro zehatzak; laguntza-lerro eta laguntza-azpillerro bakoitzarako eta esleipen-prozedura bakoitzarako aurrekontu-baliabide zehatzak; eskabideak aurkezteko epea; eskabidea aurkezterakoan entregatu beharreko dokumentazioa; baloratzeko, lortu beharreko gutxieneko puntuazioa; proiektu bakoitzeko eman daitekeen gutxieneko zenbatekoa eta proiektu eta/edo ekoizpen-zentro bakoitzeko eman daitekeen dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa; eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean ezarritakoaren arabera deialdietan beharrezkoa den edukia zein gainerako araudi aplikagarria.

Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak, bat etorri 2018ko ekainaren 19an onartutako EAeko Emakumeen eta Gizonen VII. Berdintasun Planaren esparruko Berdintasun Politikako Dokumentu Programatiko propioarekin, aintzat hartuko ditu genero-ikuspegia txertatuta duten jarduketak, eta izaera estrategikoa aitortuko die, bat etorri Emakumeen eta Gizonen Berdintasunari buruzko otsailaren 18ko 4/2005 Legean ezarritako irizpideekin.

Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren egitura organiko eta funtzionalari jarraikiz, Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritzari dagokio dirulaguntzen araubide hau kudeatzeko eskumena. Zuzendariak hartuko du balorazio-epaimahaiko presidentearen ardura eta Zuzendaritza horretara atxikitako bi funtzionario izendatuko ditu aipatutako epaimahaia osatzeko.

Ingurumena babesteko inbertsioak egiteko dirulaguntzak enpresei emateko baldintzak arautzen dituen urriaren 27ko 202/2015 Dekretuaren 15. artikuluan arabera, agindu honen bidez Ihobe SA, Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa, Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren mendekoa, erakunde laguntzaile izendatuko da dirulaguntzak kudeatzeko eta aipatutako dekretuaren 15.2 artikuluan zehaztutako funtzioak egiteko, hauetan jasotakoaren arabera: Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei

buruzko Legearen testuategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretua eta abenduaren 17ko 698/1991 Dekretua, bermeen araubide orokorra eta Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren kontura egiten diren dirulaguntzak itzultzea arautzen dituen eta horien kudeaketan parte hartzen duten erakunde laguntzaileek bete beharreko baldintzak, araubidea eta eginbeharrak ezartzen dituena.

2020ko urtarrilaren 7an onartu zuen Eusko Jaurlaritzak Euskadiko Ekonomia Zirkularrerako Estrategia 2030, zeinaren helburu nagusia baita % 26 murriztea kontsumoarekin lotutako karbono-emisioak. Laguntza-programa honek programan bertan ezarritako helburuak ez ezik, EAEko Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko Planean ezarritakoak ere lortzen laguntzen du.

Laguntza hori Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren 2021eko martxoaren 17ko Aginduaren bidez onartutako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren 2021., 2022. eta 2023. urteetarako dirulaguntzen plan estrategikoan jasota dago, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren 8.1 artikuluan xedatzen den bezala, eta arau horretan jasotako edukiaren arabera.

Dirulaguntza-programa hori Eskualde Garapeneko Europako Funtsarekin (EGEF) batera finantzatu ahal izango da, 2014-2020 EAEko EGEF Programa Eragilearen barruan, laguntzaren onuraduna enpresa txikia edo ertaina bada. EGEFen ekarpena Eusko Jaurlaritzak diruz lagundutako guztizko kopuruaren ehuneko berrogeita hamarra izango da.

Horregatik guztiagatik, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen otsailaren 23ko 68/2021 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testuategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuan, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean eta Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren kontura ematen diren dirulaguntzei eta laguntzei aplikatzeko gainerako xedapenetan xedatutakoarekin, honako hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Xedea.

Dekretu honen xedea da enpresei Euskal Autonomia Erkidegoan ingurumena babesteko inbertsioak egiteko eman beharreko dirulaguntzen 2021eko ekitaldirako deialdia egitea, Ingurumena babesteko inbertsioak egiteko dirulaguntzak enpresei emateko baldintzak arautzen dituen urriaren 27ko 202/2015 Dekretuan ezarritakoaren arabera (EHAA, 212. zk., 2015); hona laguntza-lerroak:

a) Ingurumenaren babeserako Batasunaren arauetatik haragoko laguntzak, edo, Batasunaren araurik ezean, ingurumenaren babes-maila handitzen dutenak.

b) Batasunaren gero arauetara aurrez egokitzeko laguntzak.

c) Ingurumen-azterketak egiteko laguntzak.

d) Hirugarrenek sortutako hondakinak berrerabiltzeko eta birziklatzeko inbertsioetarako laguntzak, baldintza metagarri hauek betez gero:

– Inbertsioa beste enpresa batzuek sortutako hondakinak murrizteko erabiltzen da.

– Beste egoera batzuetan, tratatutako material birziklatu edo berrerabiliak ezabatu egingo lirarteke, edo ingurumena gutxiago zainduz tratatuko lirarteke.

– Laguntzek ez diete zeharka kenduko kutsaduraren erantzuleei Batasuneko legediaren arabera beraiek beren gain hartu beharrekoa den edo enpresa-kostu normaltzat jo beharrekoa den ezein karga.

– Inbertsioaren ondorio bakarra ez da birziklatzeko materialen eskaria handitzea material horien bilketa handitu gabe.

– Inbertsioa egungo maila teknikoa gainditzera bideratuko da.

Laguntzak, apartatu honetan ezarritakoaz bestela, onuradunaren beraren hondakinak kudeatzera badaude bideratuta, a) lerroko laguntzetan aplikatuko diren irizpide orokorren arabera ebaluatuko dira.

e) Lur kutsatuak oneratzeko laguntzak, ezin bada identifikatu kutsaduraren erantzulea, edo ezin bada legez hartu birgaitzearen finantzaketaren arduraduntzat «nork kutsatu, hark ordaindu» printzipioaren arabera.

f) Enpresa txiki eta ertainentzako laguntzak, ingurumen-alorreko aholkularitza-zerbitzuetarako.

Ingurumena babesteko inbertsioak egiteko dirulaguntzak enpresei emateko baldintzak arautzen dituen urriaren 27ko 202/2015 Dekretuan ezarritako baldintzak eta mugak bete beharko dituzte dirulaguntzek, lerro hauetan.

2. artikulua.– Diruz lagunduko diren lerro zehatzak.

Deialdi honetan, diruz lagunduko dira aurreko artikuluan zerrendatutako jarduerak, epigrafe hauen barnekotzat har badaitezke:

a) Ingurumenaren babeserako Batasunaren arauetan ezarritako babes-maila baino handiagoa ematera bideratutako inbertsioak finantzatzeko laguntzak, edo, Batasunaren araurik ezean, ingurumenaren babes-maila handitzen dutenak.

a.1.– Usainak jariatzea murrizteko inbertsioak.

a.2.– Konposatu organiko lurrunkorrek arazteko ekipamenduetarako inbertsioak galdategietan.

a.3.– Galdategiko emisio zehaztugabeak minimizatzea, nabea itxita eta emisioak konfinatuta eta bilduta.

a.4.– Partikula zehaztugabeen emisioak kontrolatzeko sistemetarako inbertsioak, airearen kalitatea neurtzeko teknologia digitaletan eta sentsoretan oinarrituta.

a.5.– Hondakinak balorizatzeko instalazio berrietarako inbertsioak, hondakinen gaineko 2020ko kudeaketa-planean finkatutako helburuak lortu ahal izateko, Ekonomia Zirkularreko estrategiari jarraikiz.

a.6.– Egiturazko zementu zuntza kentzera bideratuako jarduketak, ez direnean nahitaez egin beharrekoak.

a.7.– Erregai alternatiboen ezaugarriekin alderatuta (HEH, HSB) BAT altua duten hondakinak nazioarteko arauen baldintzetara eta/edo erregaiaren eroslearen edo azken erabiltzailearen arauen baldintzetara egokitzeko inbertsioak, baldin eta, hondakinak kudeatzeko hierarkiaren ikuspuntutik, errekuntza baino balorizazio modu hoberik ez badago. Inbertsioak enpresa hondakin-sortzaileek beraiek eta hondakinen kudeatzaileek egin ahal izango dituzte.

a.8.– Hondakinak ez sortzeko eta minimizatzeko jarduketak, eta hondakinak berrerabiltzeko prestaketa-eragiketak ezartzera edo egokitzea bideratutako inbertsioak, tartean, balio-katean zehar dauden konponketa-negoioetarako inbertsioak.

a.9.– Edariak erabilera bakarreko ontzietan ontziratzen dituzten fabrikak edariak ontzi berrerabilgarrietan ontziratzen dituzten fabrika bihurtzeko inbertsioak eta norberaren ontziak edo hirugarrenenak garbitzeko sistemetarako eta ontziak berrerabiltzeko behar diren instalazio lagungarrietarako inbertsioak.

a.10.– Kaxa edo bilgarri ez birziklagarrien ordez berrerabilgarriak erabiltzeko inbertsioak (adib., poliestireno hedatuaren ordez kutxa berrerabilgarriak erabiltzea arrainetarako).

a.11.– On site edo in site teknikak aplikatzea, jardunean dauden enpresen lurzoru eraldatuen kalitatea hobetzeko.

a.12.– Aginduan eta hura garatzeko dekretuan ezarritako eskakizunak betetzen dituzten gainerakoak.

b) Batasunaren geroko arauetara aurrez egokitzeko laguntzak.

c) Ingurumen-azterketak egiteko laguntzak.

c.1.– Zaborteziaren gain beste helmugarik ez duten eta moldekatze kimikoko hondarrak eta/edo altzairu berezi eta herdoilgaitzen zepak eta/edo burdinazkoa ez den galdategietako zepak dituzten hormigoien, hormigoizko prefabrikatuen eta asfaltoen bideragarritasun tekniko, ekonomiko eta ingurumenekoa aztertze lanak. Azterketek zahartze-probak egingo dituzte 2 urteren buruan, eta jasotako frogak <https://www.ihobe.eus> helbidean eskura dagoen protokoloan bilduko dituzte.

c.2.– Berotegi-efektuko gasen edo euri azidoko gasen emisioak ahalik eta gehien murriztera bideratutako azterketak, gasok tenperatura baxuko kondentsazio bidez tratatuta, eta tratamendu biologikoa erabilia.

c.3.– Kutsatzaile berriei edo iraunkorre buruzko azterlanak (PFO, PFOA, PBDE, HBCD, TBBPA, SCCP, ftalatoak, etab.), hobeto ulertzeko zer-nola hedatzen diren ingurumenean eta hondakin-fluxuetan, eta ingurumenari buruzko araubidean txertatzeko irizpideak ezartzeko; bai eta COPen estatu mailako planeko jarduketa-lerroak garatzen dituzten azterlanak ere.

c.4.– Eraikuntzako eta eraispeneko hondakin berriei eta arriskutsuei buruzko azterlanak.

c.5.– Usain jarioak murrizteko azterlan olfatometriko borondatezkoak, betiere baldintza hauen pean egitekoak:

– Sorburu konfinatuak eta zehaztugabeak identifikatu, eta haien usain jarioak karakterizatu egin beharko dira.

– Laginketa, usainaren kontzentrazioa, hedatzeko abiadura eta usain jarioaren zehaztapena arau honen arabera egingo da: UNE-EN 13725:2004 «Airearen kalitatea. Usainaren kontzentrazioa olfatometria dinamikoaren bitartez zehaztea». UNE-EN 13725:2004 arauaren araberako ziurtagiria duten erakundeek zehaztuko dituzte instalazioko usain jarioak.

– Usain-dispersioaren ereduaren araberako azterlan olfatometrikoa egin beharko da.

c.6.– Bigarren mailako materialen ingurumen-kalitatea egokitzeko eta egiaztatze azterlanak.

c.7.– Edariak ontziratzen dituzten enpresentzako azterlanak, erabilera bakarreko ontzietan oinarritutako eredu batetik ontzi berrerabilgarrietan oinarritutako eredu batera igarotzea teknikoki, ekonomikoki eta ingurumenaren aldetik bideragarria den aztertzeko, edota sistemaren ingeniari-tza diseinatzeke, dela oinarritzkoa dela xehetasunezkoa.

c.8.– Ontzi plastikoen birziklagarritasuna hobetzera bideratutako azterlanak.

c.9.– Hondakinak balorizatzeko instalazio berrietarako proiektuen aurretiazko bideragarritasun-azterlanak, hondakinen gaineko 2020ko kudeaketa-planean finkatutako helburuak lortu ahal izateke, Ekonomia Zirkularreko estrategiari jarraikiz.

c.10.– Eusko Jaurlaritzaren Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko 2020rako Planean lehen-tasunezko zat jo diren beste ingurumen-azterlan batzuk.

c.11.– Lurzorua kutsatu dezaketen jarduketak egin diren jardunik gabeko lurzoruen azterketak, lurzoruen titularra ez bada kutsaduraren erantzulea eta kutsatzailea izan daitekeen jardueraren titularrak egin ez badu azterketarik batere.

c.12.– Aginduan eta hura garatzeko dekretuan ezarritako eskakizunak betetzen dituzten ingurumen-inbertsioak egin aurreko beste bideragarritasun-azterlan batzuk.

d) Hirugarrenek sortutako hondakinen birziklapenerako eta berrerabilpenerako inbertsioak finantzatzeko laguntzak, betiere, Ingurumena babesteko inbertsioak egiteko dirulaguntzak enpresei emateko baldintzak arautzen dituen urriaren 27ko 202/2015 Dekretuaren 2. artikuluko 4. puntuko baldintza metagarriak betetzen badira:

d.1.– Plastikokoak identifikatzeko eta bereizteko inbertsioak, hobeto birziklatzea xede; batez ere, sugar-atzeratzaile bromatudun plastikokoak.

d.2.– Bizitza baliagarriaren amaieran ibilgailuetatik eta tresna elektriko eta elektronikoetatik eratorritako piezak berrerabiltzeko eta hondakinak birziklatu eta balorizatzeko inbertsioak.

d.3.– Bizitza baliagarriaren amaieran ibilgailuak eta itsasontziak desmuntatzeko eta deskutsatzeko ekipamenduetan/makinetan inbertsioak, deskutsatzea hobetzeko, osagaiak ahal beste berrerabiltzeko eta eragiketa horietatik eratorritako hondakinak birziklatu eta balorizatzeko.

d.4.– Eraikuntzako eta eraispeneko hondakinak nahastea galarazteko eta hondakin horiek bereizteko, ondoren frakzioak balorizatu ahal izateko, gailuak, makinak eta sistemak erosteko inbertsioak.

d.5.– Plastiko-hondakinak eraldatzen edo kudeatzen dituzten industrietan, inbertsioak egitea galautsa eta mikroplastikoak biltzeko, biltegitratzeko eta horien isurketak prebenitzeko ekipamenduetan; besteak beste, xurgagailuetan, erratz-makinetan eta bilgailuetan, bai eta babes-hesietan ere, arrisku handien dagoen tokietan, hala nola ura biltzeko kutxatiletan.

d.6.– Aginduan eta hura garatzeko dekretuan ezarritako eskakizunak betetzen dituzten gainerakoak.

e) Lur kutsatuak oneratzeko laguntzak, ezin bada identifikatu kutsaduraren erantzulea, edo ezin bada legez hartu birgaitzearen finantzaketaren arduraduntzat, «nork kutsatu, hark ordaindu» printzipioaren arabera.

f) ETEen kasuan, ingurumen-arloko kanpo-aholkularitzako zerbitzuetatik eratorritako kanpo-kostuak finantzatzeko laguntzak. Deialdi honetan azpillerro hauek bakarrik lagunduko dira diruz:

f.1.– EMAS Ingurumenaren Kudeaketako Europako Sistemaren Erregistroan inskribatzeko laguntzak, bai alde zuzeneko aholkularitza bai ziurtapen-erakundearen kostuak.

f.2.– EMAS erregistroa berritzeko laguntzak. Ez da berrikuntzarako laguntzarik emango bulegoak baino ez diren jardueretarako (bankuak, aseguruak, higiezin agentziak, aholkularitzak, etab.), ezta erregistroa berritzearekin lotuta ez dauden urteko auditorietarako ere.

f.3.– Ekodiseinuko UNE-EN ISO 14006 Araua, ekoetiketak (I. edo III. mota), produktuaren ingurumen-adierazpenak edota karbono-aztarna eta ingurumen-aztarna ezartzeko eta ziurtatzeko edo erregistratzeko laguntzak. Ez da laguntzarik emango soilik bulegoko jardueren (bankuak, aseguruak, higiezinak, aholkularitzak, etab.) ingurumen-aztarna ezartzeko eta ziurtatzeko.

f.4.– Kutsagarriak izan daitezkeen jarduerak izan dituen lurzoruen kalitatea aitortzeko laguntzak, ezin bada identifikatu kutsaduraren erantzulea, edo ezin bada legez hartu birgaitzearen finantzaketaren arduraduntzat «nork kutsatu, hark ordaindu» printzipioaren arabera, baldin eta egin beharreko azterketen zenbatekoa guztira gehienez hoge mila (20.000) eurokoa bada.

f.5.– Piezetan eta produktuetan bigarren mailako plastikoa sartzeko saiakuntzak eta homologazioak. Saiakuntza horietan propietateak hobetu daitezke aditibazioaren bitartez, aplikazio baterako eraldaketa-prozesurik onena zehaztuta, suarekiko portaera hobetuta, akatsak eta konposizio kimikoa identifikatuta maila mikrometrikotan eta/edo nanometrikotan, eta, kasu guztietan bezala, bizi-zikloaren analisi konparatibo sinplifikatua eginda.

3. artikulua.– Onuradunak.

1.– Industria-jardueretan, merkataritza jardueretan edo irabazi-asmoko zein irabazi-asmorik gabeko zerbitzuak emateko jardueretan aritzen den zuzenbide pribatuko edozein pertsona fisiko edo juridiko izan daiteke agindu honetan arautzen diren dirulaguntzen onuradun, hala nola pertsona horiek osatutako elkarteak eta aldi baterako enpresa-elkarteak (ABEE) interes orokorrak eta komunak ordezkatzeko badituzte eta 202/2015 Dekretuaren 3. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen badituzte (202/2015 Dekretua, urriaren 27koa, ingurumena babesteko inbertsioak egiteko dirulaguntzak enpresei emateko baldintzak arautzekoa).

Honako hauek laguntza hauetatik kanpo geldituko dira: tokiko erakundeak, erakunde autonomoak, zuzenbide pribatuko erakunde publikoak eta sozietate publikoak, baita sektore publikoko beste erakunde batzuk ere, hala nola fundazio edo partzuergo publikoak.

ETEentzako laguntza-lerroan ingurumeneko aholkularitza-zerbitzuen laguntza lortzeko, eskatzaileak enpresa txiki edo ertainaren izaera izan beharko du, Batzordearen 2003ko maiatzaren 6ko 2003/361/EE Gomendioan, mikroenpresa, enpresa txiki eta enpresa ertainen definizioari buruzkoan, ezarritakoarekin bat.

2.– Dirulaguntzak emateko eta, hala badagokio, ordaintzeko, amaitu egin beharko dira itzultze- edo zehapen-prozedurak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta haren organismo autonomoek emandako antzeko dirulaguntzen esparruan hasita eta oraindik izapidetze-aldian badaude.

3.– Ezin izango dituzte arau honetan aipatzen diren laguntzak eskuratu dirulaguntza publikoak eskuratzea eragozten duen zehapen administratibo edo penala duten erakundeek, edo legezko debekuren bat dutenek, Euskal Herriko Ingurumena Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorraren 117. artikuluan eta Emakumeen eta Gizonen arteko berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen azken xedapenetako seigarrenean ezarritakoak barne, baldin eta neurri zuzentzaile egokiak betearazten ez badira eta zehapena bete ez bada.

4.– Ezingo dute dirulaguntzarik jaso Batzordeak laguntza bat legez kontraktotzat eta barne-merkatuarekin bateraezintzat jotzea erabaki ondoren berreskuratzeko agindu bat oraindik betetzeko duten enpresek, edo krisian dauden enpresek, Europako Batzordearen 2014ko ekainaren 17ko 651/2014 Erregelamenduaren 1.4 artikuluan xedatutakoari jarraikiz; erregelamendu horren bidez, zenbait laguntza-kategoria barne-merkatuarekin bateragarritzat jotzen dira, Tratatuaren 107. eta 108. artikulua aplikatuta (2014ko ekainaren 26ko EBAO, L 187).

5.– Halaber, agindu honetan arautzen diren laguntzak eskuratzeko, eskatzaileek egunean egon beharko dute zerga-betebeharrei eta gizarte-segurantzarekin dituzten betebeharrei dagokienez.

Deialdi honen organo kudeatzaileak automatikoki egiaztatuko du dirulaguntzen eskatzaileek zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen dituztela, behar beste aldiz, modu arrazoituan aurka egiten ez badu, bat etorri azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginaren 50.3 artikuluan xedatutakoarekin, eta horrela gertatzen bada, aipatu egiaztape-nak aurkeztu beharko dira.

4. artikulua.– Esleipenerako eta kuantifikaziorako prozedurak.

Ondorengo prozedura hauek erabiliko dira agindu honetan araututako dirulaguntzak esleitzeko:

1.– Prozedura arrunta: norgehiagoka eta hainbanaketaren bidezko kuantifikazioa.

Prozedura arruntean, agindu honen 2. artikuluko a), b), c), d) eta e) letretan jasota dauden diruz laguntzeko moduko lerroak lagunduko dira diruz.

Prozedura horretan, aginduaren 12. artikuluan ezartzen den gutxieneko puntuazioa lortzen edo gainditzen duten proiektuak baino ez dira diruz lagunduko.

2.– Prozedura sinplifikatua: norgehiagokarik gabekoa.

Prozedura sinplifikatuan, agindu honen 2. artikuluko a), b), c), d), e) eta f) letretan jasota dauden diruz laguntzeko moduko lerroak lagunduko dira diruz.

Prozedurako lerro bakoitzera bideratutako aurrekontua eskaera onartuen kopuruarekin zatituko da, eta ezingo da inola ere gainditu Ingurumena babesteko inbertsioak egiteko dirulaguntzak enpresei emateko baldintzak arautzen dituen urriaren 27ko 202/2015 Dekretuan finkatutako gehi-eneko inbertsio-ehunekoa, ezta agindu honetan ezartzen den gehi-eneko laguntza-zenbatekoa ere.

Agindu honen 2. artikuluko a), b), c), d) eta e) letretan jasota dauden lerroetako dirulaguntzak bai prozedura arruntaren bitartez bai prozedura sinplifikatuaren bitartez esleituko dira, eskatutako proiektuaren inbertsioaren zenbatekoaren arabera.

Prozedura arruntera jotzeko inbertsioaren gutxieneko zenbatekoa (alegia, zenbateko horretara iristen ez diren inbertsioek prozedura sinplifikatura jo beharko dutena) honako hau da:

a) Ingurumenaren babeserako Batasunaren arauetan ezarritako babes-maila baino handiagoa ematera bideratutako inbertsioak finantzatzeko laguntzak, edo, Batasunaren araurik ezean, ingurumenaren babes-maila handitzen dutenak.

a.1.– Usainak jariatzea murrizteko inbertsioak. Hogei mila (20.000) euro.

a.2.– Konposatu organiko lurrunkorrek arazteko ekipamenduetarako inbertsioak galdategietan. Berrogei mila (40.000) euro.

a.3.– Galdategiko emisio zehaztugabeak minimizatzea, nabea itxita eta emisioak konfinatuta eta bilduta. Berrogei mila (40.000) euro.

a.4.– Partikula zehaztugabeen emisioak kontrolatzeko sistemetarako inbertsioak, airearen kalitatea neurtzeko teknologia digitaletan eta sentsoretan oinarrituta. Ehun eta hirurogei (160.000) mila euro.

a.5.– Hondakinak balorizatzeko instalazio berrietarako inbertsioak, hondakinen gaineko 2020ko kudeaketa-planean finkatutako helburuak lortu ahal izateko, Ekonomia Zirkularreko estrategiari jarraikiz. Zortziehun mila (800.000) euro.

a.6.– Egiturazko zementu zuntza kentzera bideratuako jarduketak, ez direnean nahitaez egin beharrekoak. Sei mila (6.000) euro.

a.7.– Erregai alternatiboen ezaugarriekin alderatuta (HEH, HSB) BAT altua duten hondakinak nazioarteko arauen baldintzetara eta/edo erregaiaren eroslearen edo azken erabiltzailearen arauen baldintzetara egokitzeko inbertsioak, baldin eta, hondakinak kudeatzeko hierarkiaren ikuspuntutik, errekuntza baino balorizazio modu hobetik ez badago. Inbertsioak enpresa hondakin-sortzaileek beraien eta hondakinen kudeatzaileek egin ahal izango dituzte. Ehun eta hirurogei (160.000) mila euro.

a.8.– Hondakinak ez sortzeko eta minimizatzekeo jarduketak, eta hondakinak berrerabiltzeko prestaketa-eragiketak ezartzera edo egokitzera bideratutako inbertsioak, tartean, balio-katean zehar dauden konponketa-negoioetarako inbertsioak. Berrogei mila (40.000) euro.

a.9.– Edariak erabilera bakarreko ontzietan ontziratzen dituzten fabrikak edariak ontzi berrerabilgarrietan ontziratzen dituzten fabrika bihurtzeko inbertsioak eta norberaren ontziak edo hirugarrenenak garbitzeko sistemetarako eta ontziak berrerabiltzeko behar diren instalazio lagungarrietarako inbertsioak. Laurogei mila (80.000) euro.

a.10.– Kaxa edo bilgarri ez birziklagarrien ordez berrerabilgarriak erabiltzeko inbertsioak (adib., poliestireno hedatuaren ordez kutxa berrerabilgarriak erabiltzea arrainetarako). Hogei mila (20.000) euro.

a.11.– On site edo in site teknikak aplikatzea, jardunean dauden enpresen lurzoru eraldatuen kalitatea hobetzeko. Bost mila (5.000) euro.

a.12.– Aginduan eta hura garatzeko dekretuan ezarritako eskakizunak betetzen dituzten gainekoak. Berrogei mila (40.000) euro.

b) Batasunaren geroko arauetara aurrez egokitzeko laguntzak. Berrogei mila (40.000) euro.

c) Ingurumen-azterketak egiteko laguntzak.

c.1.– Zaborteziak gain beste helmugarik ez duten eta moldekatze kimikoko hondarrak eta/edo altzairu berezi eta herdoilgaitzen zepak eta/edo burdinazkoa ez den galdategietako zepak dituzten hormigoien, hormigoizko prefabrikatuen eta asfaltoen bideragarritasun tekniko, ekonomiko eta ingurumenekoa aztertzeko lanak. Azterketek zahartze-probak egingo dituzte 2 urteren buruan, eta jasotako frogak <https://www.ihobe.eus> helbidean eskura dagoen protokoloan bilduko dituzte. Hogei mila (20.000) euro.

c.2.– Berotegi-efektuko gasen edo euri azidoko gasen emisioak ahalik eta gehien murriztera bideratutako azterketak, gasok tenperatura baxuko kondentsazio bidez tratatuta, eta tratamendu biologikoa erabilita. Hogei mila (20.000) euro.

c.3.– Kutsatzaile berriei edo iraunkorrei buruzko azterlanak (PFO, PFOA, PBDE, HBCD, TBBPA, SCCP, ftalatoak, etab.), hobeto ulertzeko zer-nola hedatzen diren ingurumenean eta hondakin-fluxuetan, eta ingurumenari buruzko araubidean txertatzeko irizpideak ezartzeko; bai eta COPen estatu mailako planeko jarduketa-lerroak garatzen dituzten azterlanak ere. Hogei mila (20.000) euro.

c.4.– Eraikuntzako eta eraispeneko hondakin berriei eta arriskutsuei buruzko azterlanak. Hogei mila (20.000) euro.

c.5.– Usain jarioak murrizteko azterlan olfatometriko borondatezkoak, betiere baldintza hauen pean egitekoak: Hogei mila (20.000) euro.

c.6.– Bigarren mailako materialen ingurumen-kalitatea egokitzeko eta egiaztatzeako azterlanak. Hogei mila (20.000) euro.

c.7.– Edariak ontziratzen dituzten enpresentzako azterlanak, erabilera bakarreko ontzietan oinarritutako eredu batetik ontzi berrerabilgarrietan oinarritutako eredu batera igarotzea teknikoki, ekonomikoki eta ingurumenaren aldetik bideragarria den aztertzeako, edota sistemaren ingeniari-tza diseinatzeako, dela oinarritzkoa dela xehetasunezkoa. Hogei mila (20.000) euro.

c.8.– Ontzi plastikoen birziklagarritasuna hobetzera bideratutako azterlanak. Hogei mila (20.000) euro.

c.9.– Hondakinak balorizatzeko instalazio berrietarako proiektuen aurretiazko bideragarritasun-azterlanak, hondakinen gaineko 2020ko kudeaketa-planean finkatutako helburuak lortu ahal izateko, Ekonomia Zirkularreko estrategiari jarraikiz. Hogei mila (20.000) euro.

c.10.– Eusko Jaurlaritzaren Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko 2020rako Planean lehen-tasunezko zatik jo diren beste ingurumen-azterlan batzuk. Hogei mila (20.000) euro.

c.11.– Lurzorua kutsatu dezaketen jarduketak egin diren jardunik gabeko lurzoruen azterketak, lurzoruen titularra ez bada kutsaduraren erantzulea eta kutsatzailea izan daitekeen jardueraren titularrak egin ez badu azterketarik batere. Hogei mila (20.000) euro.

c.12.– Aginduan eta hura garatzeko dekretuan ezarritako eskakizunak betetzen dituzten ingurumen-inbertsioak egin aurreko beste bideragarritasun-azterlan batzuk. Hogei mila (20.000) euro.

d) Hirugarrenek sortutako hondakinen birziklapenerako eta berrerabilpenerako inbertsioak finantzatzeko laguntzak, betiere, Ingurumena babesteko inbertsioak egiteko dirulaguntzak enpresei emateko baldintzak arautzen dituen urriaren 27ko 202/2015 Dekretuaren 2. artikuluko 4. puntuko baldintza metagarriak betetzen badira:

d.1.– Plastikoa identifikatzeko eta bereizteko inbertsioak, hobeto birziklatzea xede; batez ere, sugar-atzeratzaile bromatadun plastikoa. Ehun eta hirurogei (160.000) mila euro.

d.2.– Bizitza baliagarriaren amaieran ibilgailuetatik eta tresna elektriko eta elektronikoetatik eratorritako piezak berrerabiltzeko eta hondakinak birziklatu eta balorizatzeko inbertsioak. Berrogei mila (40.000) euro.

d.3.– Bizitza baliagarriaren amaieran ibilgailuak eta itsasontziak desmuntatzeko eta deskutsatzeko ekipamenduetan/makinetan inbertsioak, deskutsatzea hobetzeko, osagaiak ahal beste berrerabiltzeko eta eragiketa horietatik eratorritako hondakinak birziklatu eta balorizatzeko. Laurogei mila (80.000) euro.

d.4.– Eraikuntzako eta eraispeneke hondakinak nahastea galarazteko eta hondakin horiek bereizteko, ondoren frakzioak balorizatu ahal izateko, gailuak, makinak eta sistemak erosteko inbertsioak. Berrogei mila (40.000) euro.

d.5.– Plastikohondakinak eraldatzen edo kudeatzen dituzten industrietan, inbertsioak egitea galautsa eta mikroplastikoak biltzeko, biltegitartzeko eta horien isurketak prebenitzeko ekipamenduetan; besteak beste, xurgagailuetan, erratz-makinetan eta bilgailuetan, bai eta babes-hesietan ere, arrisku handien dagoen tokietan, hala nola ura biltzeko kutxatiletan. Berrogei mila (40.000) euro.

d.6.– Aginduan eta hura garatzeko dekretuan ezarritako eskakizunak betetzen dituzten gainerakoak. Laurogei mila (80.000) euro.

e) Lur kutsatuak oneratzeko laguntzak, ezin bada identifikatu kutsaduraren erantzulea, edo ezin bada legez hartu birgaitzearen finantzaketaren arduraduntzat, «nork kutsatu, hark ordaindu» printzipioaren arabera. Hogei mila (20.000) euro.

5. artikulua.– Aurrekontu-zuzkidura.

1.– Ingurumena babesteko inbertsioak egiteko enpresei zuzendutako dirulaguntzen deialdi honetarako aurrekontuko diru-zuzkidura, guztira, lau milioi (4.000.000) eurokoa izango da, honela banatuta:

– Bi milioi eta lauhun mila (2.400.000) euro, prozedura arrunt bidez esleitutako proiektuetarako.

– Milioi bat eta seihun mila (1.600.000) euro, prozedura sinplifikatu bidez esleitutako proiektuetarako.

2.– Prozedura sinplifikatuan, lerroetarako eta azpillerroetarako zuzkidura modu honetan banatuko da:

a) Ingurumenaren babeserako Batasunaren arauetan ezarritako babes-maila baino handiagoa ematera bideratutako inbertsioak finantzatzeko laguntzak, edo, Batasunaren araurik ezean, ingurumenaren babes-maila handitzen dutenak.

a.1.– Usainak jariatzea murrizteko inbertsioak. Hamar mila (10.000) euro.

a.2.– Konposatu organiko lurrunkorrek arazteko ekipamenduetarako inbertsioak galdategietan. Hogei mila (20.000) euro.

a.3.– Galdategiko emisio zehaztugabeak minimizatzea, nabea itxita eta emisioak konfinatuta eta bilduta. Hogei mila (20.000) euro.

a.4.– Partikula zehaztugabeen emisioak kontrolatzeko sistemetarako inbertsioak, airearen kalitatea neurtzeko teknologia digitaletan eta sentsoretan oinarrituta. Ehun mila (100.000) euro.

a.5.– Hondakinak balorizatzeko instalazio berrietarako inbertsioak, hondakinen gaineko 2020ko kudeaketa-planean finkatutako helburuak lortu ahal izateko, Ekonomia Zirkularreko estrategiari jarraikiz. Bostehun mila (500.000) euro.

a.6.– Egiturazko zementu zuntza kentzera bideratuako jarduketak, ez direnean nahitaez egin beharrekoak. Hogei mila (20.000) euro.

a.7.– Erregai alternatiboen ezaugarriekin alderatuta (HEH, HSB) BAT altua duten hondakinak nazioarteko arauen baldintzetara eta/edo erregaiaren eroslearen edo azken erabiltzailearen arauen baldintzetara egokitzeko inbertsioak, baldin eta, hondakinak kudeatzeko hierarkiaren ikuspuntutik,

errekuntza baino balorizazio modu hoberik ez badago. Inbertsioak enpresa hondakin-sortzaileek beraien eta hondakinen kudeatzaileek egin ahal izango dituzte. Laurogei mila (80.000) euro.

a.8.– Hondakinak ez sortzeko eta minimizatzeko jarduketak, eta hondakinak berrerabiltzeko prestaketa-eragiketak ezartzera edo egokitzera bideratutako inbertsioak, tartean, balio-katean zehar dauden konponketa-negoioetarako inbertsioak. Hogei mila (20.000) euro.

a.9.– Edariak erabilera bakarreko ontzietan ontziratzen dituzten fabrikak edariak ontzi berrerabilgarrietan ontziratzen dituzten fabrika bihurtzeko inbertsioak eta norberaren ontziak edo hirugarrenenak garbitzeko sistematarako eta ontziak berrerabiltzeko behar diren instalazio lagun-garrietarako inbertsioak. Hirurogei mila (60.000) euro.

a.10.– Kaxa edo bilgarri ez birziklagarrien ordez berrerabilgarriak erabiltzeko inbertsioak (adib., poliestireno hedatuaren ordez kutxa berrerabilgarriak erabiltzea arrainetarako). Berrogei mila (40.000) euro.

a.11.– On site edo in site teknikak aplikatzea, jardunean dauden enpresen lurzoru eraldatuen kalitatea hobetzeko. Ehun mila (100.000) euro.

a.12.– Aginduan eta hura garatzeko dekretuan ezarritako eskakizunak betetzen dituzten gainekoak. Hogei mila (20.000) euro.

b) Batasunaren geroko arauetara aurrez egokitzeko laguntzak. Hogei mila (20.000) euro.

c) Ingurumen-azterketak egiteko laguntzak. Ehun eta hirurogei (160.000) mila euro.

d) Hirugarrenek sortutako hondakinen birziklapenerako eta berrerabilpenerako inbertsioak finantzatzeko laguntzak, betiere, Ingurumena babesteko inbertsioak egiteko dirulaguntzak enpresei emateko baldintzak arautzen dituen urriaren 27ko 202/2015 Dekretuaren 2. artikuluko 4. puntuko baldintza metagarriak betetzen badira:

d.1.– Plastikoak identifikatzeko eta bereizteko inbertsioak, hobeto birziklatzea xede; batez ere, sugar-atzeratzaile bromatudun plastikoak. Laurogei mila (80.000) euro.

d.2.– Bizitza baliagarriaren amaieran ibilgailuetatik eta tresna elektriko eta elektronikoetatik eratorritako piezak berrerabiltzeko eta hondakinak birziklatu eta balorizatzeko inbertsioak. Hogei mila (20.000) euro.

d.3.– Bizitza baliagarriaren amaieran ibilgailuak eta itsasontziak desmuntatzeko eta deskutsatzeko ekipamenduetan/makinetan inbertsioak, deskutsatzea hobetzeko, osagaiak ahal beste berrerabiltzeko eta eragiketa horietatik eratorritako hondakinak birziklatu eta balorizatzeko. Berrogei mila (40.000) euro.

d.4.– Eraikuntzako eta eraispeneko hondakinak nahastea galarazteko eta hondakin horiek bereizteko, ondoren frakzioak balorizatu ahal izateko, gailuak, makinak eta sistemak erosteko inbertsioak. Hogei mila (20.000) euro.

d.5.– Plastiko-hondakinak eraldatzen edo kudeatzen dituzten industrietan, inbertsioak egitea galautsa eta mikroplastikoak biltzeko, biltegitratzeko eta horien isurketak prebenitzeko ekipamenduetan; besteak beste, xurgagailuetan, erratz-makinetan eta ibilgailuetan, bai eta babes-hesietan ere, arrisku handien dagoen tokietan, hala nola ura biltzeko kutxatiletan. Berrogei mila (40.000) euro.

d.6.– Aginduan eta hura garatzeko dekretuan ezarritako eskakizunak betetzen dituzten gainekoak. Berrogei mila (40.000) euro.

e) Lur kutsatuak oneratzeko laguntzak, ezin bada identifikatu kutsaduraren erantzulea, edo ezin bada legez hartu birgaitzearen finantzaketaren arduraduntzat, «nork kutsatu, hark ordaindu» printzipioaren arabera. Laurogeita hamar mila (90.000) euro.

f) ETEen kasuan, ingurumen-arloko kanpo-aholkularitzako zerbitzuetatik eratorritako kanpo-kostuak finantzatzeko laguntzak.

f.1.– EMAS Ingurumenaren Kudeaketako Europako Sistemaren Erregistroan inskribatzeko laguntzak, bai aldeaz aurreko aholkularitza bai ziurtapen-erakundearen kostuak. Hamar mila (10.000) euro

f.2.– EMAS erregistroa berritzeko laguntzak. Ez da berrikuntzarako laguntzarik emango bulegoak baino ez diren jardueretarako (bankuak, aseguruak, higiezin agentziak, aholkularitzak, etab.), ezta erregistroa berritzearekin lotuta ez dauden urteko auditorietarako ere. Hogeita mila (20.000) euro.

f.3.– Ekodiseinuko UNE-EN ISO 14006 Araua, ekoetiketak (I. edo III. mota), produktuaren ingurumen-adierazpenak edota karbono-aztarna eta ingurumen-aztarna ezartzeko eta ziurtatzeko edo erregistratzeko laguntzak. Ez da laguntzarik emango soilik bulegoko jardueren (bankuak, aseguruak, higiezinak, aholkularitzak, etab.) ingurumen-aztarna ezartzeko eta ziurtatzeko. Hogeita mila (20.000) euro.

f.4.– Kutsagarriak izan daitezkeen jarduerak izan dituen lurzoruen kalitatea aitortzeko laguntzak, ezin bada identifikatu kutsaduraren erantzulea, edo ezin bada legez hartu birgaitzearen finantzaketaren arduraduntzat «nork kutsatu, hark ordaindu» printzipioaren arabera. Hogeita hamar mila (30.000) euro.

f.5.– Piezetan eta produktuetan bigarren mailako plastikoa sartzeko saiakuntzak eta homologazioak. Hogeita mila (20.000) euro.

3.– Eskabide gutxi aurkezteagatik edota eskakizunak ez betetzeagatik, adierazitako lerroren edo azpilerroren baterako esleitutako diru kopurua agortzen ez bada, sobera dagoen diru kopuruarekin beste esleipen-lerroren edo azpilerroren batera zuzendutako kopurua handitu daiteke, Ingurumeneko sailburuordeak horretarako ebazpen bat emanda, balorazio-epaimahaiak proposatu ondoren, eta aurkeztutako eskabide kopuruaren arabera.

6. artikulua.– Laguntzak EGEF, Eskualde Garapeneko Europako Funtsarekin batera finantzatzea.

Eskualde Garapeneko Europako Funtsarekin batera finantzatzeko dira laguntza horiek, eta EGEFen ekarpena dirulaguntzaren ehuneko berrogeita hamar izango da, onuraduna enpresa txikia edo ertaina bada. Horregatik, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren abenduaren 17ko 1303/2013 Erregelamenduan (EB) ezarritakoaren mende daude lerro honetako laguntzak, eta hauek dira EGEFen laguntzarekin egindako finantzaketatik eratorritako betebeharrak (I. eranskina): Onuradunak Estatuko legeria eta Europar Batasuneko araudia bete beharra dauka, kontrolari, erantzukizunari, zehapen-araubideari eta ez-betetzeei dagokienez, baita Ingurumena babesteko inbertsioak egiteko dirulaguntzak enpresei emateko baldintzak arautzen dituen urriaren 27ko 202/2015 Dekretuaren 20. artikuluan ezarritako gainerako betebeharrak ere.

Diruz lagundutako jarduketan gainera informazio- eta komunikazio-neurri guztietan Europar Batasunak EGEFen bitartez ere diruz laguntzen duela aipatu behar dute, betiere agindu honen I. eranskinaren arabera.

7. artikulua.– Eskabideak aurkezteko epea.

Eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

8. artikulua.– Eskabideak aurkeztea.

1.– Eskabideak bide elektroniketatik bakarrik egin ahalko dira. Eskabideen, erantzukizunpeko adierazpenen eta gainerako ereduaren izapideen gaineko zehaztapenak eskuragarri daude Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa.

Prozedura arrunta: <https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/1026406>

Prozedura sinplifikatua: <https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/1026506>

Eskabidearen ondorengo izapideak ere elektronikoki egingo dira egoitza elektronikoko «Nire Karpeta» erabilita, helbide honetan: <https://www.euskadi.eus/nirekarpeta>

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa onartutako identifikazio eta sinadura elektronikorako bideak helbide hauetan daude eskuragarri: <https://www.euskadi.eus/ziurtagiri-elektronikoak>.

2.– Eskabidea ordezkari baten bitartez aurkezten bada, ordezkaritza justifikatu beharko da, Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 5. eta 6. artikuluetan ezarritakoaren arabera.

Ordezkaritza Eusko Jaurlaritzako Ordezkarien Erregistroan inskribatuta egon ahal izango da. Hona hemen Erregistroa sartzeko esteka: <https://www.euskadi.eus/ordezkariak>.

3.– Eskabideari jarraian adierazten den dokumentazioa erantsi beharko zaio:

– Hirugarrenen alta; elektronikoki izapidetu ahal izango da, helbide honetan eskuragarri dagoen zerbitzuaren bidez: <https://www.euskadi.eus/hirugarrenak>

– Erantzukizunpeko adierazpena, erakundean ahalak dituen pertsona batek sinatua, Ingurumena babesteko inbertsioak egiteko dirulaguntzak enpresei emateko baldintzak arautzen dituen urriaren 27ko 202/2015 Dekretuaren 11.4 artikuluan eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 69. artikuluan ezarritakoaren arabera.

– Oinarrizko eta harremanetarako datuen formularioa.

– Proiektuaren datuen formularioa.

– Aurrekontuaren eta diruz lagundu daitezkeen kostuen formularioa. Europar Batasuneko arauen babes-maila baino goragoko bat emateko, araurik ez dagoenean babes-maila areagotzeko edo etorkizuneko arauetarako egokitzapena aurreratzeko eta lur kutsatuak oneratzeko inbertsio-eskaeretan, diruz lagun daitezkeen kostuak zehaztu beharko dira Ingurumena babesteko inbertsioak egiteko dirulaguntzak enpresei emateko baldintzak arautzen dituen urriaren 27ko 202/2015 Dekretuaren 6. artikuluan eta II. eranskinean zehaztutakoekin bat. Hondakinak birziklatzeko eta berrerabiltzeko inbertsio-eskabideetan, eskatzailearen erabakia justifikatzeko azterlan ekonomikoa aurkeztu beharko da.

– Aukeran, eta inprimakiko puntuak argitzeko asmoz, proiektua azaltzeko txosten bat, aurrekontuak edo eskatzaileak nahi duen dokumentazioa aurkeztu ahal izango dira.

9. artikulua.– Eskabidea zuzentzea.

Dirulaguntzaren eskabidean ez badira betetzen aurreko artikuluan eskatutako baldintzak edo aplikagarriak diren lege espezifikotan eskatutakoak, interesdunari eskatuko zaio akatsa zuzentzeko edo aurkeztu ez dituen nahitaezko dokumentuak eransteko hamar egun balioduneko epe

luzaezinean, eta, era berean, jakinaraziko zaio ezen, hori egin ezean, eskabidean atzera egin duela ulertuko dela, deialdia ebazteko organo eskudunak horretarako ebazpena eman ondoren.

10. artikulua.– Baztertzeak.

Dagokion eskabidea aurkeztu aurretik egindako inbertsioekin lotutako proiektuak ez dira diruz lagunduko.

11. artikulua.– Esleitzeko eta baloratzeko irizpideak.

Prozedura arruntaren bidez esleipenak ondoren adierazitako balorazio-irizpideen arabera egingo dira:

a) Industria-jarduerak ingurumenean daukan eraginari dagokionez, ondorengo sektoreetan barne hartutako instalazioekin lotuta egindako inbertsioak baloratuko dira, ingurumenean eragin handiena daukaten sektoreetako batzuk direlako: galdaketa, altzairugintza, beroko ijezketa, zementua, beira, zeramika, karea, hondakinen kudeatzaileak, gainazaleko tratamenduak, beroko galbanizazioa, oregintza-papergintza eta sektore kimikoa. Halaber, indarrean dagoen Ingurumen Esparru Programaren helburuei egindako ekarpena ere baloratuko da.

b) Egingo den inbertsioak ekarriko duen ingurumen-hobekuntza eta ekoeraginkortasuna zehazteari dagokionez, zein motatakoa den baloratuko da, argi bereizita «hodi-bukaerakoak» izeneko proiektuak egingo diren, alegia, emisio kutsagarriak tratatzekoak, edo emisiorik ez sortzeko proiektuak. Era berean, hobekuntza era absolutuan eta erlatiboan kuantifikatuta hartuko da aintzat, baita kutsagarri arriskutsuenak gutxitzeko zer-nolako hobekuntza lortu den ere.

c) Basoko hegaziak kontserbatzeari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren azaroaren 30eko 2009/147/EE Zuzentarauan eta Habitat naturalak eta basoko fauna eta flora zaintzeari buruzko Kontseiluaren 1992ko maiatzaren 21eko 92/43/EEE Zuzentarauan aipatzen diren eremu kalteberei, Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbatzeko Legearen testu bategina onartzen duen apirilaren 15eko 1/2014 Legegintzako Dekretuaren arabera babestuta dauden naturguneei edo hiriguneei eragiten dieten instalazioetan inbertitzeari dagokionez, proiektuak espazio horiekiko duen hurbiltasuna eta ingurumen-interesa baloratuko dira.

d) Proiektuaren ekoberrikuntzari dagokionez, haren berrikuntza-maila eta transferigarritasuna hartuko dira kontuan. Zehazki, Teknologia Garbien Euskal Zerrendan jasotako teknologia guztiak berritzailetzat joko dira, ezer gehiago justifikatu behar izan gabe.

e) Proiektuaren koherentzia eta kalitatea: baloratuko da ingurumen-arloko problematika zehatza adierazten duen barne-diagnostikorik daukan enpresak, eta proiektuan erabiliko den konponbidea behar bezala justifikatuta dagoen.

f) Laguntzak eskatzen dituzten pertsona juridikoek euren enpresa txikia edo ertaina dela egiaztatzea, Batzordearen 2003ko maiatzaren 6ko Gomendioan, mikroenpresa, enpresa txiki eta ertainaren definizioari buruz, ezarritakoa betez.

g) Inbertsioa gauzatzen den tokian ingurumen-kudeaketako sistemen (SGMA) baliozko ziurtagiria izatearen egiaztatpena.

h) Plantilla kudeatzeko emakumeen eta gizonen berdintasunerako plan bat izatea edo «Emakumeen eta gizonen berdintasunerako erakunde laguntzailea» dela aitortzen duen dokumentua izatea edo ibilbidea izatea emakumeen eta gizonen berdintasunerako bideratutako politikak edo jarduketak burutzen.

12. artikulua.– Prozedura arrunterako haztatzea.

1.– Agindu honen 11. artikuluan jasota dauden balorazio-irizpideak, guztira 100 puntu jasota haztatuko dira, eta, jarraian azaldutako gehieneko puntuazioarekin, honela banatuko dira puntu horiek:

Industria-jarduerak ingurumenean daukan eragina: – Aginduko lehentasunezko sektoreak: 5. – IEPren helburuei egindako ekarpena: 5.	10 puntu
Aurreikusitako inbertsioak ingurumenean egingo duen hobekuntza: – Hobekuntza mota: 10. – Kuantifikazio absolutua: 10. – Kuantifikazio erlatiboa: 20.	40 puntu
Inbertsioak egitea azaroaren 30eko 2009/147/EE Zuzentarauko eta maiatzaren 21eko 92/43/EEE Zuzentarauko eremu kalteberei eta apirilaren 15eko 1/2014 Legegintzako Dekretuaren arabera espazio natural babestuei eragiten dieten instalazioetan.	5 puntu
Proiektuaren koherentzia eta kalitatea.	10 puntu
Proiektua ekologiaren aldetik berritzailea izatea.	10 puntu
2003ko maiatzaren 6ko Gomendioaren arabera ETE edo mikro ETE gisa kalifikatutako enpresak: – Ertaina: 5. – Txikia: 10. – Mikroetxea: 12.	12 puntu
Ingurumen-kudeaketako sistemak, gehienez ere 10 puntu: – EMAS: 10. – ISO 14.001: 7. – Ekoscan Plus edo UNE 150.301: 5. – Ekoscan: 3.	10 puntu
Emakume eta gizonen berdintasun-arloko jarduketak.	3 puntu
Guztira.	100 puntu

2.– Ondorengo artikulua honetan ezarritako esleipen-irizpideen arabera, gutxienez 100 puntutik 55 lortzen dituzten eskaerek dirulaguntza jasotzeko aukera izango dute.

13. artikulua.– Dirulaguntzen zenbatekoa eta esleipen-irizpideak.

1.– Salbuespenez izan ezik, ez dira gaindituko Ingurumena babestera bideratutako inbertsioak egiteko enpresei ematen zaizkien dirulaguntzak arautzen dituen urriaren 27ko 202/2015 Dekretuaren 1. eranskinean zehaztutako gehieneko ehunekoak.

2.– Prozedura arruntean, zenbatekoa honako hauen arabera zehaztuko da:

- a) Proiektuaren puntuazioa, aurreko artikuluen arabera haztapena aplikatuta.
- b) Proiektuetako inbertsio garbiaren zenbatekoak.

Dirulaguntzak ezingo dira inola ere berrehun mila (200.000) euro baino handiagoak izan proiektu eta/edo ekoizpen-zentro bakoitzeko, inbertsioen eta lurren saneamenduaren kasuan, ezta berrogeita hamar mila (50.000) euro baino handiagoak ere, azterlanen kasuan.

Aurreko artikuluan adierazitako gutxienezko puntuazioa gainditu arren gutxienez hiru mila (3.000) euroko dirulaguntzara iristen diren proiektuak bakarrik lagunduko dira diruz.

3.– Prozedura sinplifikatuan, honako hauen arabera zehaztuko da zenbatekoa:

- a) Proiektuetako inbertsio garbiaren zenbatekoak.

b) Ildo bakoitzerako erabilgarri dagoen aurrekontu-esleipena, diruz lagundu beharreko proiektuen artean zatituta.

Gehieneko zenbatekoa honako hau izango da:

a) Ingurumenaren babeserako Batasunaren arauetan ezarritako babes-maila baino handiagoa ematera bideratutako inbertsioak finantzatzeko laguntzak, edo, Batasunaren araurik ezean, ingurumenaren babes-maila handitzen dutenak.

a.1.– Usainak jariatzea murrizteko inbertsioak. Hamar mila (10.000) euro proiektu eta/edo ekoizpen-zentro bakoitzeko.

a.2.– Konposatu organiko lurrunkorrak arazteko ekipamenduetarako inbertsioak galdategietan. Hogeita mila (20.000) euro proiektu eta/edo ekoizpen-zentro bakoitzeko.

a.3.– Galdategiko emisio zehaztugabeak minimizatzea, nabea itxita eta emisioak konfinatuta eta bilduta. Hogeita mila (20.000) euro proiektu eta/edo ekoizpen-zentro bakoitzeko.

a.4.– Partikula zehaztugabeen emisioak kontrolatzeko sistemetarako inbertsioak, airearen kalitatea neurtzeko teknologia digitaletan eta sentsoretan oinarrituta. Hogeita hamar mila (30.000) euro proiektu eta/edo ekoizpen-zentro bakoitzeko.

a.5.– Hondakinak balorizatzeko instalazio berrietarako inbertsioak, hondakinen gaineko 2020ko kudeaketa-planean finkatutako helburuak lortu ahal izateko, Ekonomia Zirkularreko estrategiari jarraikiz. Berrehun mila (200.000) euro proiektu eta/edo ekoizpen-zentro bakoitzeko.

a.6.– Egiturazko zementu zuntza kentzera bideratuako jarduketak, ez direnean nahitaez egin beharrekoak. Bost mila (5.000) euro proiektu eta hogeita mila (20.000) euro ekoizpen-zentro bakoitzeko.

a.7.– Erregai alternatiboen ezaugarriekin alderatuta (HEH, HSB) BAT altua duten hondakinak nazioarteko arauen baldintzetara eta/edo erregaiaren eroslearen edo azken erabiltzailearen arauen baldintzetara egokitzeko inbertsioak, baldin eta, hondakinak kudeatzeko hierarkiaren ikuspuntutik, errekuntza baino balorizazio modu hoberik ez badago. Inbertsioak enpresa hondakin-sortzaileek beraiek eta hondakinen kudeatzaileek egin ahal izango dituzte. Berrogeita mila (40.000) euro proiektu eta hirurogeita mila (60.000) euro ekoizpen-zentro bakoitzeko.

a.8.– Hondakinak ez sortzeko eta minimizatzeko jarduketak, eta hondakinak berrerabiltzeko prestaketa-eragiketak ezartzera edo egokitzera bideratutako inbertsioak, tartean, balio-katean zehar dauden konponketa-negoioetarako inbertsioak. Hamar mila (10.000) euro proiektu eta/edo ekoizpen-zentro bakoitzeko.

a.9.– Edariak erabilera bakarreko ontzietan ontziratzen dituzten fabrikak edariak ontzi berrerabilgarrietan ontziratzen dituzten fabrika bihurtzeko inbertsioak eta norberaren ontziak edo hirugarrenenak garbitzeko sistemetarako eta ontziak berrerabiltzeko behar diren instalazio lagungarrietarako inbertsioak. Hogeita mila (20.000) euro proiektu eta hogeita hamar mila (30.000) euro ekoizpen-zentro bakoitzeko.

a.10.– Kaxa edo bilgarri ez birziklagarrien ordez berrerabilgarriak erabiltzeko inbertsioak (adib., poliestireno hedatuaren ordez kutxa berrerabilgarriak erabiltzea arrainetarako). Hamar mila (10.000) euro proiektu eta/edo ekoizpen-zentro bakoitzeko.

a.11.– On site edo in site teknikak aplikatzea, jardunean dauden enpresen lurzoru eraldatuen kalitatea hobetzeko. Hogeita mila (20.000) euro proiektu eta/edo ekoizpen-zentro bakoitzeko.

a.12.– Aginduan eta hura garatzeko dekretuan ezarritako eskakizunak betetzen dituzten gainekoak. Hamar mila (10.000) euro proiektu eta/edo ekoizpen-zentro bakoitzeko.

b) Batasunaren geroko arauetara aurrez egokitzeko laguntzak. Hamar mila (10.000) euro proiektu eta/edo ekoizpen-zentro bakoitzeko.

c) Ingurumen-azterketak egiteko laguntzak. Hamar mila (10.000) euro proiektu eta/edo ekoizpen-zentro bakoitzeko.

d) Hirugarrenek sortutako hondakinen birziklapenerako eta berrerabilpenerako inbertsioak finantzatzeko laguntzak, betiere, Ingurumena babesteko inbertsioak egiteko dirulaguntzak enpresei emateko baldintzak arautzen dituen urriaren 27ko 202/2015 Dekretuaren 2. artikuluko 4. puntuko baldintza metagarriak betetzen badira:

d.1.– Plastikokoak identifikatzeko eta bereizteko inbertsioak, hobeto birziklatzea xede; batez ere, sugar-atzeratzaile bromatudun plastikokoak. Hamar mila (10.000) euro proiektu eta/edo ekoizpen-zentro bakoitzeko.

d.2.– Bizitza baliagarriaren amaieran ibilgailuetatik eta tresna elektriko eta elektronikoetatik eratorritako piezak berrerabiltzeko eta hondakinak birziklatu eta balorizatzeko inbertsioak. Bost mila (5.000) euro proiektu eta/edo ekoizpen-zentro bakoitzeko.

d.3.– Bizitza baliagarriaren amaieran ibilgailuak eta itsasontziak desmuntatzeko eta deskutsatzeko ekipamenduetan/makinetan inbertsioak, deskutsatzea hobetzeko, osagaiak ahal beste berrerabiltzeko eta eragiketa horietatik eratorritako hondakinak birziklatu eta balorizatzeko. Hamar mila (10.000) euro proiektu eta/edo ekoizpen-zentro bakoitzeko.

d.4.– Eraikuntzako eta eraispeneko hondakinak nahastea galarazteko eta hondakin horiek bereizteko, ondoren frakzioak balorizatu ahal izateko, gailuak, makinak eta sistemak erosteko inbertsioak. Hamar mila (10.000) euro proiektu eta/edo ekoizpen-zentro bakoitzeko.

d.5.– Plastikohondakinak eraldatzen edo kudeatzen dituzten industrietan, inbertsioak egitea galautsa eta mikroplastikoak biltzeko, biltegitatzeko eta horien isurketak prebenitzeko ekipamenduetan; besteak beste, xurgagailuetan, erratz-makinetan eta bilgailuetan, bai eta babes-hesietan ere, arrisku handien dagoen tokietan, hala nola ura biltzeko kutxatiletan. Hamabost mila (15.000) euro proiektu eta/edo ekoizpen-zentro bakoitzeko.

d.6.– Aginduan eta hura garatzeko dekretuan ezarritako eskakizunak betetzen dituzten gainerakoak. Hamar mila (10.000) euro proiektu eta/edo ekoizpen-zentro bakoitzeko.

e) Lur kutsatuak oneratzeko laguntzak, ezin bada identifikatu kutsaduraren erantzulea, edo ezin bada legez hartu birgaitzearen finantzaketaren arduraduntzat, «nork kutsatu, hark ordaindu» printzipioaren arabera. Sei mila (6.000) euro proiektu eta/edo ekoizpen-zentro bakoitzeko.

f) ETEen kasuan, ingurumen-arloko kanpo-aholkularitzako zerbitzuetatik eratorritako kanpo-kostuak finantzatzeko laguntzak. Deialdi honetan azpillerro hauek bakarrik lagunduko dira diruz:

f.1.– EMAS Ingurumenaren Kudeaketako Europako Sistemaren Erregistroan inskribatzeko laguntzak, bai alde zuzeneko aholkularitza bai ziurtapen-erakundearen kostuak. Sei mila (6.000) euro proiektu eta/edo ekoizpen-zentro bakoitzeko.

f.2.– EMAS erregistroa berritzeko laguntzak. Hiru mila (3.000) euro proiektu eta/edo ekoizpen-zentro bakoitzeko.

f.3.– Ekodiseinuko UNE-EN ISO 14006 Araua, ekoetiketak (I. edo III. mota), produktuaren ingurumen-adierazpenak edota karbono-aztarna eta ingurumen-aztarna ezartzeko eta ziurtatzeko edo erregistratzeko laguntzak. Lau mila (4.000) euro proiektu eta/edo ekoizpen-zentro bakoitzeko.

f.4.– Kutsagarriak izan daitezkeen jarduerak izan dituen lurzoruaren kalitatea aitortzeko laguntzak, ezin bada identifikatu kutsaduraren erantzulea, edo ezin bada legez hartu birgaitzearen finantzaketaren arduraduntzat «nork kutsatu, hark ordaindu» printzipioaren arabera. Hamar mila (10.000) euro proiektu eta/edo ekoizpen-zentro bakoitzeko.

f.5.– Piezetan eta produktuetan bigarren mailako plastikoa sartzeko saiakuntzak eta homologazioak. Saiakuntza horietan propietateak hobetu daitezke aditibazioaren bitartez, aplikazio baterako eraldaketa-prozesurik onena zehaztuta, suarekiko portaera hobetuta, akatsak eta konposizio kimikoa identifikatuta maila mikrometrikotan eta/edo nanometrikotan, eta, kasu guztietan bezala, bizi-zikloaren analisi konparatibo sinplifikatua eginda. Bost mila (5.000) euro proiektu eta/edo ekoizpen-zentro bakoitzeko.

4.– Diruz lagun daitekeen kostua zehazteko, Ingurumena babesteko inbertsioak egiteko dirulaguntzak enpresei emateko baldintzak arautzen dituen urriaren 27ko 202/2015 Dekretuaren 6.4 artikuluan ezarritakoaren arabera, balorazio-epaimahaiak eskatzaileak adierazitako inbertsio garbia doitu ahal izango du, bai entitate eskatzaileak emandako dokumentazioa eta datuak bai merkatuko batezbesteko balioak/prezioak eta eskura daukan gainerako informazioa kontuan hartuta. Erakunde eskatzaileak aurkeztutako inbertsio garbiaren eta egindako inbertsio garbiaren kalkuluaren artean % 50etik gorako aldea baldin badago, erakunde kudeatzaileak erakunde eskatzaileari egindako inbertsio garbiaren kalkuluaren emaitza jakinaraziko dio, baita hori zehazteko kontuan hartutako datuak ere, eta 10 eguneko epea emango dio egokitzen jotzen dituen alegazioak aurkeztu ditzan, hala nahi izanez gero.

14. artikulua.– Dirulaguntzak kudeatzen dituen organoa.

Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saileko Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritza arduratuko da deialdi honetan jasotako laguntzak kudeatzeaz eta aurkezten diren eskabideak aztertu eta ebaluatzeaz.

15. artikulua.– Erakunde laguntzailea.

1.– Agindu honetan arautzen diren dirulaguntzak kudeatzeko, Ihobe SA Sozietate Publikoa erakunde laguntzaile izendatzen da, honako hauek ezarritakoarekin bat: Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretua; eta, Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren kontura ematen diren dirulaguntzen bermeei eta horiek itzultzeari buruzko erregimen orokorra arautzen duen eta horien kudeaketan parte hartzen duten erakunde laguntzaileek bete beharreko baldintzak, erregimena eta eginbeharrak ezartzen dituen abenduaren 17ko 698/1991 Dekretua.

2.– Ihobe SAK, erakunde laguntzailea den heinean, Ingurumena babesteko inbertsioak egiteko dirulaguntzak enpresei emateko baldintzak arautzen dituen urriaren 27ko 202/2015 Dekretuaren 15.2 artikuluan deskribatutako funtzioak egingo ditu, aipatutako sozietate publikoari programa eta jarduera jakin batzuk egiteko ardura ematen zaion urteko ebazpenean aurreikusitako baldintzen arabera.

16. artikulua.– Ebazpena.

1.– Esleitzeko prozedura bakoitzeko ebazpena urteko agindua Euskal Herriko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta gehienez ere ondorengo sei hileko epean eman eta jakinaraziko zaie pertsona interesdunei.

2.– Epe hori igarota interesdunak ebazpenik jasoko ez balu, kasuan kasuko eskabidea ezeztatzat joko da, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 25. artikuluan ezarritakoaren arabera.

3.– Dirulaguntzak emateko prozeduraren ebazpena Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoan argitaratuko da, publikotasun-ondoreetarako.

4.– Diruz lagundutako proiektuak 2013ko abenduaren 17ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1303/2013 (EB) Erregelamenduaren 2. ataleko 115. artikuluan aurreikusitako zerrenda publikoan agertuko dira.

17. artikulua.– Baldintzen agiria.

Proiektu bakoitzaren bereizgarriei erreparatuta, hala dagokienean, diruz lagundutako proiektua gauzatu ahal izateko nahitaez bete beharreko baldintza teknikoak eta ekonomikoak ezarriko dira. Baldintza horiek erakunde onuradunei banan-banan helaraziko zaien baldintzen agiri batean jasoko dira, Ingurumena babesteko inbertsioak egiteko dirulaguntzak enpresei emateko baldintzak arautzen dituen urriaren 27ko 202/2015 Dekretuan ezarritakoaren arabera.

Ingurumena babesteko inbertsioak egiteko dirulaguntzak enpresei emateko baldintzak arautzen dituen urriaren 27ko 202/2015 Dekretuaren eta Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren urteko aginduaren arabera diruz lagundutako proiektuen betekizun orokorrak, «Oinarrizko gida diruz lagundutako proiektuak gauzatzeko eta justifikatzeko» agirian daude jasota. Hemendagoeskura: prozedura arruntaridagozkionak, <https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/1026406> helbidean, eta prozedura sinplifikatuari dagokionak, <https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/1026506> helbidean.

18. artikulua.– Errekurtsoak.

Agindu honen aurka, aukerako berraztertze errekurtsoa jarri ahal izango zaio Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuari, hilabeteko epean, hala xedatzen baita Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. artikuluan eta ondorengoetan. Bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean xedatutakoarekin bat etorritik.

LEHENENGO XEDAPEN GEHIGARRIA

Agindu honen bidez deitutako dirulaguntzei arau hauek aplikatuko zaizkie: ingurumena babesteko inbertsioak egiteko dirulaguntzak enpresei emateko baldintzak arautzen dituen urriaren 27ko 202/2015 Dekretua; Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea; azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testuategina; Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legea, eta uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen Erregelamendua onartzen duena.

BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA

Agindu honetan jasotako zenbateko osoa eta esleipen-prozedura bakoitzean zehaztutako esleipena handitu ahal izango dira, eskatutako laguntza guztien zenbateko osoa kontuan izanirik, Ingurumen, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren beste programa

batzuk gauzatu ondoren agortu gabe geratu diren aurrekontu-baliabideen arabera eta horien ebazpena eman baino lehen. Zenbatekoa aldatzen bada, Ingurumeneko sailburuordearen ebazpen baten bidez emango da argitara.

AZKEN XEDAPENA

Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko ekainaren 9a.

Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburua,
MARÍA ARANZAZU TAPIA OTAEGUI.

I. ERANSKINA

EGEFren kofinantzaketatik eratorritako betebeharrak:

Eskualde Garapeneko Europako Funtsak lagundurik finantzatzen dira dirulaguntzak (EGEFen ekarpena diruz lagundutako zenbateko osoaren % 50 izango da). Horregatik, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013ko abenduaren 17ko (EB) 1303/2013 Erregelamenduan ezarritakoaren mende daude laguntzak, eta honako hauek dira EGEFen laguntzarekin egindako finantzaketatik eratorritako betebeharrak:

– Kontrol, erantzukizun, zehapen-araubide eta ez-betetzeei dagokienez, onuradunak estatuko eta Batasuneko legedia betetzeko betebeharra du.

– EAeko 2014-2020 aldirako EGEF programa eragilearen esparruan kofinantzatuko da laguntza, eta alderdi horren berri eman beharko da Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013ko abenduaren 17ko 1303/2013 (EB) Erregelamenduen 115. artikuluko 3. apartatua eta XII. eranskineko 2.2 apartatua ezarritakoari jarraikiz. Alde horretatik, diruz lagundutako jarduketari buruzko informazio- eta komunikazio-ekintza guztietan, EGEFen bidez Europar Batasunaren finantzaketa jaso dela aipatu beharko da, jarduketan berri emateko sortutako material edo euskarrietan, Batasunaren enblema eta Europar Batasunaren erreferentzia txertatuta; gainera, eragiketa gauzatu bitartean, labur deskribatuko da eragiketa bere webgunean, Europar Batasunaren laguntza finantzarioa nabarmenduta, eta gutxienez proiektuari buruzko informazio-kartel bat jarriko da obran, A3 tamainakoa gutxienez, eta han, Batasunaren dirulaguntza aipatuko da herritarrek nabarmen ikusteko moduan.

– Dirulaguntzei buruzko Estatuko arauak bete behar dira (abenduaren 29ko HFP/1979/2016 Agindua, Eskualde Garapeneko Europako Funtsaren programa eragileek diruz lagundu ditzaketan gastuei buruzko arauak onartzen dituen 2014-2020 aldirako), baita Europar Batasunekoak ere; hots, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013ko abenduaren 17ko 1303/2013 Erregelamendua (EB) eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013ko abenduaren 17ko 1301/2013 Erregelamendua (EB).

– Laguntza-araubideak nahitaez bete behar du 2014ko ekainaren 17ko 651/2014 Erregelamendua, zenbait laguntza-kategoria barne-merkatuarekin bateragarritzat jotzen direna, Tratatuaren 107. eta 108. artikulua aplikatuta.

– Eragiketaren kostuak zehazteko metodoa eta dirulaguntza ordaintzeko baldintzak dirulaguntzen gaineko araudian adierazita daude (Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013ko abenduaren 17ko 1303/2013 Erregelamenduen 67.6 artikulua; HFP/1979/2016 Aginduaren 14., 15. eta 16. artikulua, EGEFen 2014-2020 aldiko programa operatiboetan diruz lagun daitezkeen gastuei buruzko arauak; eta 480/2014 Erregelamenduen 20. eta 21. artikulua).

– Diruz lagundutako jarduketari buruz eskatzen zaion informazioa eman behar du onuradunak, eskatzen zaion formatuan (1011/2014 Erregelamenduen 10.1 artikulua).

– Batasunak ere finantzatutako jardueren gaineko banan-banakako kontabilitatea eraman behar du, edo erraz identifikatzeko moduko kode espezifikoaren bidezkoa (Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013ko abenduaren 17ko 1303/2013 (EB) Erregelamendua, 125.4.b artikulua).

– Eragiketari buruzko finantza- eta administrazio-informazioa eta haren garapenaren jarraipenari buruzkoa artxibatu beharko du, hiru urteko epean, eragiketaren gastuak jasota dauden kontuak aurkeztu ondoko abenduaren 31tik aurrera. Informazio hori, gainera, agintari eskudunen esku jarri

beharko du, hala eskatzen diotenean (Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013ko abenduaren 17ko 1303/2013 Erregelamenduaren 125.4.d eta 140.1 artikulua).

– Eragiketari lotutako produktibitate-adierazleetan nolako maila lortu den jakinarazi beharko du, bai eta gastuak justifikatu ere (Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013ko abenduaren 17ko 1303/2013 Erregelamenduaren 125.2 artikulua).

– EGEF laguntza onartuz gero, ontzat ematen da eragiketen zerrenda publikoan sartzea (Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013ko abenduaren 17ko 1303/2013 Erregelamenduaren 115. artikulua 2. apartatua eta XII. eranskina).

– Iruzurraren aurkako neurri eraginkor eta proportzionalak aplikatzen lagunduko du bere kudeaketa-eremuan, eta ez du izango finantzaketa bikoitzik, dokumentu faltsurik eta abar. Halaber, informazioa eman behar du, izan litezkeen arriskuak antzemateko. Neurri hauek guztiek berekin ekar dezakete iruzur-arriskuen aurkako prozedurak berrikustea eta, iruzur-arrisku handia dagoela ebaluatuz gero, laguntza-eskabideari ezezkoa ematea edo jasotako laguntza kentzea (Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013ko abenduaren 17ko 1303/2013 Erregelamenduaren 125.4.c artikulua).

II. ERANSKINA

Informazioaren eta komunikazioaren arloko laguntza-araubideetako EGEFen publikotasunerako jarraibideak, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013ko abenduaren 17ko 1303/2013 (EB) Erregelamenduaren 115. artikuluko 3. apartatua eta XII. eranskinek 2.2 apartatua egoki betetzeko.

1.– Onuradunak egiten dituen informazio- eta komunikazio-neurri guztietan funtsek jarduketari emandako laguntzaren berri beharko du, hauek erakutsiz:

a) Europar Batasunaren enblema, Batzordeak 115. artikulua 4. apartatuarekin bat etorritik hartutako gauzatze-egintzan ezarritako ezaugarri teknikoak jarraikiz, baita Europar Batasunaren aipamen bat ere.

b) Eskualde Garapenerako Europako Funtzaren (EGEF) aipamen bat.

Horretarako, egin beharreko informazio- eta komunikazio-jarduera guztietan zein proiektua/jarduera egin bitartean sor daitezkeen agiri guztietan Eusko Jaurlaritzakoarekin batera txertatu behar den logotipoa atxiki da.



Europar Batasuna
Unión Europea

Fondo Europeo de
Desarrollo Regional (FEDER)
"Una manera de hacer Europa"

Eskualde Garapenerako
Europar Funtza (EGEF)
"Europa egiteko modu bat"



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

EKONOMIAREN GARAPEN,
JASANGARRITASUN
ETA INGURUMEN SAILA

DEPARTAMENTO DE DESARROLLO
ECONÓMICO, SOSTENIBILIDAD
Y MEDIO AMBIENTE

2.– Jarduketa bat egiten duenean, onuradunak funtsetatik lortutako laguntzaren berri emango du jendaurrean:

a) Hartarako, jarduketaren deskribapen laburra egingo du Interneteko gunean, halakorik badu, jasotako laguntza-mailaren neurrikoa; haren helburuak eta emaitzak zehaztuko ditu bertan, eta Europar Batasunaren laguntza finantzarioa nabarmenduko du (aurretik aipatutako logoa ere jasoko du, orobat).

b) Halaber, 4. eta 5. puntuetan jaso gabeko jarduketentzat, gutxienez proiektuari buruzko informazioa duen kartela ipiniko du (gutxienez A3 neurrikoa); kartel horretan Europar Batasunaren finantza-laguntza aipatuko du, eta jendeak erraz ikusteko moduko tokian egongo da, eraikin baten sarreran, esaterako.